



**ITSASONDOKO  
EUSKARAREN  
ERABILERA  
PLANA  
2018-2022**



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

**2021EKO  
URTARRILAREN 11**

2018



# Saioaren egitura

- Erabilera planaren testuingurua
- Metodologia eta prozedura
- Diagnostikoa
- Zergatik euskaraz?
- Itsasondoko datuak
- 2021eko ekintzak



# Erabilera planaren testuingurua

## LEGE OINARRIA

- EAeko Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legea, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakiduna.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea.
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bere jardunbidea arautzen duten estatutuak.
- Euskal Autonomi Erkidegoko 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa.



# Erabilera planaren testuingurua

## HELBURUAK



# Metodologia eta prozedura




- 1) **DIAGNOSTIKOA:** Sei langile elkarrizketatu dira, eta udaletxeko dokumentuen lagin bat behatuda.
- 2) Diagnostikotik abiatuta, 2022 arteko **HELBURUAK** zehaztu dira.
- 3) Erabilera plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali da, eta **ALDEKO TXOSTENA** jaso da.
- 4) Erabilera plana osoko bilkuran **ONARTU** da.
- 5) Urtez urte **JARRAIPENA** egingo zaio.



# Diagnostikoa

## LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA 1. Erakundearen irudia

**%88,75**



# Diagnostikoa

## LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

### 1. ERAKUNDEAREN IRUDIA:


- Hizkuntza paisaia euskaraz, salbuespen gutxi batzuk kenduta.
- Sortze-hizkuntza euskara da.
- Jakinarazpenak euskaraz dira, gizarte saileko hainbat salbuespen kenduta.
- Jendaurreko adierazpenak euskaraz dira.
- Webgunea euskaraz dago.



# Diagnostikoa

## LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA 2. Herritarrekiko harremanak

**%95**





# Diagnostikoa

## LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

### 2. BEZEROEKIKO EDO HERRITARREKIKO HARREMANAK

#### Deskribapen orokorra:

- Udal langileek beti euskaraz egiten dute lehen hitza.
- Udal komunikazio guztiak euskaraz dira sistematikoki. Erdaldunen zerrenda eginda dago, eta haiei ele bietan bidaltzen zaie.
- Erdaraz egiten da herritarrak hala eskatuz gero, edo beste erakunde batzuekin harremantzerakoan.
- Udalaren izenean zerbitzuren bat ematen duen enpresari kontratazioan zehazten zaio euskaraz eman eta jasoko duela arreta.



# Diagnostikoa

## BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA 1. Barne komunikazioa eta lan tresnak

**%94,2**



# Diagnostikoa

## **BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA**

### **1. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK**

#### Deskribapen orokorra:

-Langileen jarduna euskaraz da, oro har. Halere, errotulazio txikirako ez dago jarraibide zehatzik.

-Tresna digitalak euskaraz daude, baina fotokopiagailua gaztelaniaz dago.

-Aktak, dekretuak, ebazpenak eta abar euskaraz dira. Baita txostengintza ere, nahiz eta hirigintzako kanpotik datozen txosten batzuk gaztelaniaz jasotzen diren.



# Diagnostikoa

## BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA 2. Pertsonen kudeaketa

**%80**



# Diagnostikoa

## BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

### 2. PERTSONEN KUDEAKETA

Deskribapen orokorra:

- Udalak ez du ikastarorik antolatzen, beste erakunde batzuek antolatutakoetara joan ohi dira, eta horiek gaztelaniaz izaten dira askotan.
- Lan-kontratuak eta nominak eta halako paper kontuak euskaraz egiten dira.
- Langile berrientzat harrera liburua dago (gaur banatuko dugu), hizkuntz irizpideak zein gainerakoak azaltzeko.



# Diagnostikoa

## BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA 3. Kanpo harremanak

**%85,8**



# Diagnostikoa

## **BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA**

### **3. KANPO HARREMANAK**

#### **Deskribapen orokorra:**

- Beste erakundeetara, igorpen guztiak euskaraz egiten dira.
- Ahozkoan euskaraz da lehen hitza, eta ahal bada, euskarazko solaskideak eskatzen dituzte hainbat langilek.
- Udalaren hornitzaile ohikoenak 21 dira. Horietatik, 7k euskaraz bidaltzen dituzte fakturak; 9k gaztelaniaz eta 5ek ele bietan. Ahozkoan, 14 euskaldunak dira, 4k solaskide euskaldun batzuk dituzte eta 2k ez dute egiten euskaraz.



# Diagnostikoa

**Euskara planaren txertatze maila eguneroko lanean: %88koa.**

**Euskara sortze-hizkuntza: gaur egun, %95ean.**

**TONTORREAN!**





# Zergatik euskaraz?

- **Hizkuntza gutxitua** da euskara.
- Naturan bezala, arriskuan dauden horien **aldeko neurriak ezinbestekoak** dira.
- **Arnasguneetan dago indarra**, ardura berezia dute hizkuntzari eusteko eta hura zabaltzeko.
- **Administrazioa eredu da**, herritarrekin harremanetan daude udal langileak.
- **Udal langileek estatusa ematen diote** euskarari, erakusten dute euskara administrazio eta politikako hizkuntza ere badela, **“gauza garrantzitsuen” hizkuntza** dela.



# Itsasondoko datuak

	1996	2006	2016
EZAGUTZA	%82,49	%74,56	%76,81
LEHEN HIZKUNTZA	%78,18	%57,5	%54,14
ETXEKO HIZKUNTZA	%67,04	%51,6	%44,9



# 2021erako ekintzak



## LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

- Euskaraz egitera animatzeko mezuak jarri udal eraikinetan (2020an hasita).
- Langileei hizkuntz irizpideen eta erabilera planaren ingurukoak gogorarazi, udaletxearen diagnostikoaren beri eman.
- Hizkuntza irizpideen eskuorria banatu udal langileen artean.
- Musika eskolako jarduna arautzeko irizpideei jarraipena egitea (2020an hasita).

## BIGARREN ARDATZA: LAN HIZKUNTZA

- Fakturak euskalduntzeko saiakera egin: hornitzaileen fakturak jasotzean, gutun bat bidali fakturak euskaraz egiteko eskatuz eta laguntza eskainiz.
- Ordenagailu guztiek dute euskarazko softwarea, baina programa batzuk gaztelaniaz dira. Berrikusi baden aurkera horiek euskaraz jartzeko (12 programa edo aplikazio).

## KUDEAKETA SISTEMA FINDU ETA SISTEMATIZATU

- Musika eskolako jarduna arautzeko irizpideei jarraipena egitea (2020an hasita).



# ESKERRIK ASKO!

Segi herritarren eredu izaten!

